

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2008/879/CE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA 2008ko urriaren 22koa, Europar Batasuneko Elkartasun Funtza mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioaren 26. puntuari jarraiki. Akordio hori aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozeduraren hobekuntzari buruzkoa da.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DECISIÓN 2008/879/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de octubre de 2008, relativa a la movilización del Fondo de Solidaridad de la Unión Europea de conformidad con el punto 26 del Acuerdo interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 314/13 de 25/11/2008)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

II

(EE/Euratom Tratatuak aplikatzeko erabakitako egintzak, derrigorrez argitaratu behar ez direnak)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA

2008ko urriaren 22koa

Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioaren 26. puntuari jarraiki. Akordio hori aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozeduraren hobekuntzari buruzkoa da.

(2008/879/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioa aztertu dute, aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozedurari buruzkoa ⁽¹⁾, eta, bereziki, haren 26. puntua, Kontseiluaren 2012/2002/EE Erregelamendua, 2002ko azaroaren 11koa, Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa eratzen duena, aztertu dute ⁽²⁾,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

- (1) Europar Batasunak Europar Batasuneko Elkartasun Funtsa («Funtsa») eratu du hondamendien eraginez suntsitutako eskualdeetan kaltetutako biztanleei elkartasuna adierazteko.
- (2) 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioari esker, urtean gehienez 1.000 euro arteko kopurua mobilizatu daiteke funtsetik.
- (3) 2012/2002/EE Erregelamenduaren xedapenek arautzen dute funtsaren mobilizazioa.
- (4) Funtsa mobilizatzeko eskaera aurkeztu du Frantziak, «Dean» urakanak 2007ko abuztuan eragindako hondamendirako.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

Europar Batasuneko 2008ko ekitaldiko aurrekontu orokorraren esparruan, 12.780.000 euro mobilizatuko dira konpromiso- eta ordainketa-kreditutan, Europar Batasuneko Elkartasun Funttsaren kontura.

2. artikulua

Erabakia *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

(1) C 139 EO, 1008.5.14koa, 1. or.
(2) L 311 EO, 2002.11.14koa, 3. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estrasburgon emana, 2008ko urriaren 22an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean
Presidentea
J.-P. JOUYET